

Fernando Morillo

Zure arimaren truke



© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Fernando Morillok OBRARENA

Editorial Txalaparta e.m.l.
Navaz y Vides 1-2
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Eteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
RGM
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN
978-84-8136-531-3
LEGE GORDAILUA
BI. 3.270-08



Minbiziaren aurkako lubakietan zabilzaten heroi isil guztiei

*Bizitza bizitzeko bi modu daude.
Bata, ezer miragarririk izango ez balitz bezala.
Bestea, guztia miragarria balitz bezala.*

ALBERT EINSTEIN

EGUNEROKO EGIA

KAOSAREN ZIENTZIAK ERAKUSTEN DUEN moduan, aldaketa txikienak ere sekulako ondorioak ekartzen ditu zenbait sistematan. Askotan entzungo zenuen, irakurle: litekeena da Brasilen dabilen tximeleta baten hegalditxoak urakan bat abiatzea Miamin. Edo Bilbon. Edo norberaren baitan. Gure bizitza ere, ez gutxitan, halako lege kaotikoek zuzentzen dutela ematen du. Horrela, gertaera ñimiño batetik (esate baterako, aintzat hartzen ez dugun esaldi garrantzigabe batetik) ezin konta ahala hari askatzen dira. Eta hari horietariko asko amildegirantz doaz. Eta gu ere bagaramatzate.

—Buruko minez nago, Bernat —esan zidan Irurik.

Bernat ni naiz, noski. Eta Iruri neska-laguna, pisukidea eta aitortu ezineko ametsa nuen. Sarritan, liskarrez liskar ibiltzen baginen ere.

—Ez nau harritzen –aurpegiratu nion, haserre-puntu batez–. Ezetz esaten ez ausartzeagatik izango da.

Hitza omen da bidea. *Konponbidea*. Ez beti. Batzuetan nahasteko baino ez baitu balio, nork bere erara ulertzeko erabiltzen duenean, batik bat. Nondik datorkigu etengabe elkarren aurka jokatu beharra? Bizikidetzaren ezinbestea? Eguneroko platerari falta zaion halabeharrezko gatza, asperraldiak jo ez gaitzan?

Hitzak, hitzak, hitzak.

Orain, duela urtebeteko egun madarikatu hura gogoratzen dudan bakoitzean, saminak zeharkatzen nau erraien barrenetik buruko azken ile-puntaraino. Baina orduan ez nekien zer etorriko zen gero, eta orain bai. Orain badakit nolako urakan basatia eratu zen hegaldi txiki hartatik.

—Lanean ilundu arte geratzen naizen azkeneko aldia izango da –ziurtatu nahi izan zidan Irurik–. Benetan.

—Hori esan zenuen aurreko hilean. Eta baita azkenaurrekoan ere.

Iruri abokatu zebilen, bulego ospetsu batean. Ospearen ordaina lana zen. Lana erruz. Lana goizez, arratsaldez eta maiz iluntzez. Gauren bat edo beste erori izan zen inoizka, egun hartan bezala.

—Zor diet. Badakizu –justifikatu zen.

Nik Iruri ezagutu aurretik, bolada ekonomiko txar samarra igaro zuen neskak. Bulegoko nagu-

siek mailegu salbatzaile bat egin omen zioten, eta harrezkero zorretan sentitu zen haiekin. Baina ez diru zorretan (guztia itzuli zien), sentimentalean baizik, mesedeagatik. Aise uler nezakeen hori. Baina nekez, ordea, zor hura kitatzeko etengabeko ordainean ibili behar izatea. Ez zen bidezkoa.

—Mesedez, Bernat —tematu zen Iruri—. Uler ezazu.

—Ba ez dakizu ba azkenean onartuko dudala —esan nion—. Beti onartzen dizut eta.

Tonuak lañoa izan nahi zuen, baina ez nuen inondik inora ondo kalkulatu. Izan ere, oparizat hartuko zuela uste izan nuen, nire maitasunaren erakusgarri edo. Txapa-behera, ordea. Beste hainbestetan bezala. Bai irristakorra sentimenduaren gramatika...

—Ezin dut —jaurti zidan Irurik, bat-batean sutsu—. Horrela hasten zarenean, ezin dut irentsi. Ezin dut jasan. Ez. Orain ez hasi santua bazina bezala! Nik ere pairatu behar ditud-eta zureak. Eta ez gutxitan!

—Ei, ei, Iruri, lasai gaitezen. Trankil. Ez dakit zer demontre, baina ohi baino urduriago ikusten zaitut. Benetan diotsut, ez naiz adarra jotzen ari. Egia esaten badizut, pixka bat kezkatuta naukazu. Benetan. Zergatik ez duzu lasaigarriren bat hartzen? Inoiz baino lan handiagoa egiten ari zara azken hilabeteotan. Horrek estutu egiten zaitu, eta

inoiz baino ozpinago za... gabilitza –zuzendu nuen, azken segundoan–. Biok gabilitza.

—Hara bestea –egotzi zidan–. Inoiz baino lan handiagoa diozu. Eta zuk? Ikerkuntza amaigabe horretan sartuta egun batean eta hurrengoan...

—Ez da gauza bera.

—Aaaa, jakina, *señorito* hori. Ez nuen gogoratzten. Zurea beti desberdina da.

—Nik ordu dezente sartzen ditut lanean, baina nik erabakitako jarduna da. Nik erabakitako ikerkuntza. Zu gogoz kontra ari zara azkenaldian, batere gustatzen ez zaizkizun kasuak eta ardurak hartzen. Nik, gutxi edo asko, gozatu egiten dut. Zu indarrik gabe gelditzen ari zara. Entzudazu: une honetan atsedena behar duzu, arnastea baino are gehiago.

—Ba al dakizu zer? Ez zait zure hitzen doinua gustatzen. Ezta batere. Baina nazkatuta nago eztabaidatzeaz. Kito. Zergatik ez dugu uzten?

—Ados. Guztiz.

Isilik geratu ginen apurtxo batez. Irurik begiak itxi eta esku bat eraman zuen kopetara.

—Mina –esan nuen, begi-bistakoa zena ahoskatuz–. Mina duzu. Egundak batzuk daramatzazu horrela.

—Bai. Egundak batzuk. Lehen ez dizut esan, ordua eskatu dut medikuan –azaldu zidan Irurik–. Bihar joan behar dut.

—Hara. Ba, oso ondo iruditzen zait. Lasaitzeko zerbait emango dizu, ikusiko duzu. Ea, orain joan

zaitez ohera eta etzan pixka batez. Afaria prestatu-ko dut. Abisatuko dizut mahaia jarrita dagoenean.

—Egingo al zenuke?

—Horixe esan dut.

Iruriri behingoan samurtu zitzaion begirada.

—Banekien –jarraitu zuen–. Ez zara adierazi nahi izaten duzun bezain gogorra. Zergatik amaitu behar dugu beti horrelako ika-mika tontoak izanez?

—Geneetan idatzita daukagulako? –txantxeta-ko tonua jarri nuen–: Piperra baino piperragoa zarelako?

—Baboa halakoa.

—Erabat. Ea, segi ohera. Gero deituko dizut.

—Mila esker.

—Segi. Segi!

METEORITOK AZTERTZEKO PROGRAMA

BERNAT REZABAL DUT IZENA eta ingeniari informatikoa eta fisikaria naiz. Ikertzea gustatzen zait. Asko. Eta uste dut esan daitekeela lana obsesio dudala, zaletasun baino gehiago. Txikitatik ibili nintzen bila, ulertzen ez nuen guztia azalduko zuten erantzunen bila.

Izarrak, malkoak, zuhaitzak edo liburuak: hainbeste zegoen bildu eta behar bezala neureganatu ezin nuena. Hainbeste ideia eta amets jarraitzeko, arakatzeko eta biluzteko. Harago iristen saiatzen nintzen, une oroz. Pixka bat gehiago ikusteko. Pixka bat gutxiago itotzeko. Jakin-gose amaigabe horrek fisikara eta informatikara eramane ninduen, eta, Irurik askotan esaten zidan bezala, orduetik zientziaren jonkia izan nintzen. Eta naiz.

Horri lotuta, aitortu beharra dut zorte handia izan nuela orain lau zapabost urte. Zortea, bai. Zien-

tziaren alorrean mugitzen naiz, arrazionaltasun matematikoaren eremuan, baina hor ere, tarteka-marteka, berebiziko garrantzia dauka zori hutsak. Fisika eta informatikako karrerak amaitu eta lanean hasi nintzeneko garai hartan, programa informatiko bat garatu nuen (ia denbora-pasa, ia jolasean), meteoritoen erortzearen inguruko ikerketa estatistikoko bat egiteko. Ez zen programa bereziki konplexua, baina bai originala. Edonola ere, ez zeukan erabilpen praktikorik, eta burua trebatzeko eta zorrozteko sortu nuen batik bat, bestelako helbururik gabe. Bada, bizitzak ezustean ekartzen duen aukera bitxi horietariko bat agertu zitzaidan bidearen erdian, eta espero ez nuen aldagai berri bat azaldu zen: Jokin.

Jokin laguna nuen, urteak baziren ere elkar ikusten ez genuela. Ikaskideak izan ginen Fisikako karreraren hasieran, baina Jokin unibertsitatez unibertsitate hasi zen orduan, eta kontinentez kontinente. Ez zen leku berean egotekoa eta ikastekoa. Nomadatasun hura gorabehera, ahal genuen baikoitzean saiatzen ginen elkartzen, batere erraza izaten ez zen arren. Ni hamaika proiektutan ibiltzen nintzen oro har, eta Jokinek, karrera amaitu zuenean ere, munduan zehar jarraitu zuen, orainxe irakasle Kaliforniako Institutu Teknologikoan, orainxe ikerlari Berlingo Max Planck Institutuan... eta abar, eta abar. Bizpahiru urtean behin baino

ezin izaten ginen elkartu eta, horrenbestez, poz handiz hartzen genituen halako aukera bakanak.

—*Bank of American* egiten diat lan –azaldu zidan Jokinek, gure azken topaketan.

Nire bat-bateko harridura ez nuen inola ere antzeztu.

—Hi? Banku batean? Baita zera ere! –atera zitzaidan–. Etengabe ari haiz lana aldatzen, baina... banku batean? Ez diat sinesten. Ez huke astebete ere iraungo halako batean lanean. Aspergarriegia hiretzat.

—Hala duk, ba.

—Eta zer demontre egiten dik bat fisikari peto bikain batek finantzen munduan?

—Bitxia ematen badik ere, zientzia. Zientzia egiten ari nauk –zehaztu zidan, irribarre alai batez–. Ezarpen-funtsen fluktuazioak ikertzen ditiat, diru-gordailuak, inbertsioak, transakzioak... Dena, tresna estatistiko aurreratu batzuk erabilia. Neurri batean, fisikako karreran ikasi genuen mekanika estatistikoaren antzekoa duk.

—Dirua ikertzen duk. Interesgarria. Partikulak balira bezala har daitezke txanponak, ala? –galdetu nion, artean guztiz sinetsi ezinda–. Diru asko zergok munduan... baina ez al da edonola ere gutxiegi emaitza erabilgarriak lortzeko? Trilioika txanpon beharko lirateke! Edo pertsonak hartzen dituzue kontuan? Okerragoa, orduan, askoz pertsona gu-

txiago zeudek txanponak baino. Hik ezagutuko duk Isaac Asimov dibulgatzailearen psikohistoria, ezta?

—Nola ez! *Fundazioak* liburuetan azaltzen duk. Asimovek ideia interesgarria izan zian. Hemendik ez-dakit-zenbat mendetara, gizakien kopurua izugarri hazi da, galaxia osoan barreiatu ondoren. Hainbeste ugaldutara, partikula balira bezala har baitaitezke. Eta partikulak bezala ikertu, mekanika estatistikoarekin egiten den moduan.

—Hire laneko hori antzeko zerbait duk?

—Bai. Baina alde garrantzitsu batzuk zeudek mekanika estatistiko klasikoarekin –argitu zidan Jokinek–. Esate baterako, partikulek ez ditek kontzientziarik. Ez ditek beldurrik. Gizakiek bai. Joera nagusi gutxi batzuk ditiztek. Eta horrek kalkulu orokorrak errazten ditik.

—Egiantan ari haiz, kabroi hori.

—Horixe egiantan!

—Gizakiak ikertzen ari haiz...

—Begira ezak –tabernako paper-zapi bat hartu eta hantxe bertan hasi zen formula batzuk idazten–. Ez dituk bereziki konplexuak. Jendeak sortutako mugimendu ekonomikoak auresateko eta haren arabera neurriak hartzeko balio ditek. Hurbilpen gisa, behintzat.

Biziki interesgarria iruditu zitzaidan: posible ote zen gizakion jokamoldea mekanika estatistiko

hutsez kalkulatzea... eta beharbada eraldatzea? Jokinek paperean idatzitako formulak ikustean, danba-hots batek jo ninduen bete-betean.

—Joño, joño. Oso antzeko formulak erabiltzen dituen programa bat egiten ari nauk –aitortu nion, zurturik–. Meteoritoen erortzeari buruzko ikerketa estatistiko bat garatzeko egin nian.

—Bada, beharbada aztertu egin beharko genikek –esan zidan, barrez–. Sekulako dirutza ordaintzen zigutek fisikarioi ikerketa hauek egiteagatik. Egundokoa, ordea. Ezingo huke imajinatu ere egin.

Besoak gurutzatu eta urrunera begira geratu zen Jokin.

—Zer? –galdetu nion–. Zer pasatu zaik orain burutik?

—Entzun. Benetan esan diat aurrekoa. Hik buru ona duk ezohiko formulak asmatzeko, eta egia esango diat: katigaturik gabiltzak ikerketarekin. Ideia berriren baten bila ari ninduan azkenaldion. Auskalo, beharbada hire programa horrek bide itsutik ateratzeko balio ziguk. Zergatik ez didak erakusten?

Leonardo da Vincik esaten zuen moduan, plazerik handiena ulertzearen poza da. Halako pozez gainezka joan ginen etxera, eta astirik galdu gabe alderatu genituen Jokinen formulak eta nire programarenak. Berehala jabetu ginen: bi sistemak baliokideak ziren, neurri handi batean. Bata bestea-

ren osagarri erabil zitekeen, itxuraz. Karrera garai-ko zirrara amaiezinak jo gintuen orduan.

—Hau egundokoa duk, Bernat. Egundokoa! —atera zitzaion Jokini.

Ibili gabeko bide bat usaindu genuen... eta munduan ez zegoen indarririk geldituko gintuenik.

Ez luzatzeko, eta labur esateko, bion artean fin-
du eta egokitu genuen programa, bankuek ikertu
nahi zituzten formulak erabiltzeko. Ondoren, Joki-
nek etxeko lanak egin zituen: zenbait banku han-
diri erakutsi zien, eskaintzaile onenari emango zio-
la esanez. Zintzo izanda, ez dakit ziur zenbateraino
zen garrantzitsua edo baliagarria gure lan hura,
baina Jokinek aipatu zizkidan diru-zifrak zorabia-
tzeko modukoak izan ziren. AEBetako inbertsio-
banku eskerge batek *irabazi* zuen enkantea.

Ordainean jaso genuen ondasuna ezin sinetsiz-
koa izan zen, niretzat behintzat. Ez zen eztabaida-
rik egon Jokinen eta bion artean: erdi bana egin ge-
nuen. Nahikoa eta sobera genuen, baita hamar
aldiz bizitzeko asmoa edukita ere.

Pixka bat pentsatu ondoren, nire erdiarekin txi-
kitako amets ezinezko bat gauzatzea erabaki nuen:
laborategi txukun bat erosi, eta gustuko nuen hura
guztia ikertzen hasi nintzen. Lau laguntzaile kon-
tratatu nituen, langile finak eta gogotsuak guztiak.
Oro har, informatikako enpresa batzuentzat egiten
genuen lan, *freelance* modura, baina nik ezin nuen

baztertu nire barruko zientzialari orojalea, eta bestelako atal batzuk erantsi nizkion laborategiari, askotariko ikerketak egiteko.

Emaitza ekonomikoak lortzeko estutasunik ez neukanez, proiektu eroak edo ezohikoak aurkez zitzatela eskatzen nien langileei. Zenbat eta ikerkuntza originalagoak eta erakargarriagoak, orduan eta hobeto. Materialen fisika, ingeniariak kimikoa, bioteknologia... Denetik pixka bat ukitzen genuen. Kanpoko behatzaileraren batek ikusi bagintu inoiz, umetzat hartuko gintuen ziur asko: lan gogorrean baino gehiago, jolasean ari ginela irudituko baitzitzaioren. Ederra baita, oso, benetan gogoko duzun horretan aritu ahal izatea.

IZUAREN HASIERA

AFALTZEKO ORDUAN IRITSI NINTZEN etxera, baina gauetik hurbilago iluntzetik baino. Alegia, berandu. Beste behin.

—Iruri? –deitu nion, etxean sartu bezain laster.

Ez nuen erantzunik jaso. Sukaldeko argia piztuta zegoenez, harantz egin nuen, nire baitan justifikazio samur baten bila ari nintzela, berandutu izanagatik. Mahaiaren aurrean aurkitu nuen Iruri.

—Barkatu, atzeratu... –hasi nintzen.

Segituan mututu nintzen, ordea, giroan zerbait bitxia antzeman ondoren. Hutsari begira zegoen Iruri, geldi eta isil. Begirada zehaztugabea zeukan.

—Medikutan izan naiz –azaldu zidan, labur eta zorrotz.

—Egia, ez nintzen oroitzen –bizkarreko poltsa lurrean utzi eta oinetakoen lokarria askatzen hasi nintzen-. Eta?

—Ez dakit. Neurologoarengana bidali nau.

Irurik kezkatuta zirudien, eta ni kutsatu ninduen larritasun hartaz.

—Neurologoa –errepikatu nuen, hitza dastatzen bezala. Irribarre behartua egin nion—. Ondo! Horrek hobeto jakingo du buru-kontuez.

—Bai. Baina ez zait gustatu medikuaren begirada.

—Jesus, neska. Begi-okerra izango zen gizajoa! –bota nion, txantxa egin nahian.

—Hori izango zen.

—Eta noiz joan behar duzu neurologoarengana?

—Bihar bertan.

—Hara. Horixe eraginkortasuna.

Tonu animosoa agertu nahi nuen arren, ez nion usain ona hartu kontuari. Ez zitzaidan seinale ona iruditzen medikua presaka ibiltzea. Aitortuko dut beldurrak jo ninduela bat-batean. Eta...? Geldi. Geldi. Nire zalantzak eten nituen. Beldurra zen erreakzio normala, baina ez zeukan logikarik alferrik nekatzen hasteak. Ez orduan behintzat, ezer ez genekiela.

Ezin nion Iruriri nire urduritasuna agerian utzi (hori ere erreakzio normala izango zen): biren kezka gehiegizkoa da, elkar elikatzen baitute. Giza-senari egin nion jaramon, eta axolagabearen eginkizuna betetzen ahalegindu nintzen. Oinarrizko jokamoldea halako egoera batean. Batzuetan, min handiagoa ez izateko modurik onena beste alde batera begiratzea da, ezta? Umetan erortzean bezala: inork ikusten ez

bazaitu, negarra gerora dezakezu (ahal den neurrian, noski!), aukera *hobe* baten zain.

—Tira, ez da ezer izango –esan nion.

—Ziur.

—Dena dela, atsedena behar duzu, baina gaurtik hasita –gaineratu nion, samurtasunez, eta hala ere behar bezain irmo—. Zergatik ez dituzu jaiegun batzuk hartzen lanean?

—Ezin dut, Bernat. Kasu garrantzitsu baten erdian gaude.

—Ez zara bulegoko bakarra, aizu! Jende gehiago dago.

—Baina une honetan guztiok gara beharrezkoak. Bi aste. Gero hartuko dut atsedena.

—Niri eskatzen al didazu? Ez naiz nigatik ari, zure lasaitasunagatik baizik.

—Baina elkarrekin bizi gara. Niretzat garrantzitsua da zure onespina. Bi aste.

—Beno, zuk ikusi. Gero, bizpahiru aste jai haritzazu, faborez.

—Horixe egingo dut.

Iruriri errieta egiten jarraitzeko gogoia banuen ere, barruko ahotsak oihu egin zidan. Ez al nintzen ni neu antzekoa? Ez al nintzen ni ikerkuntzan murgiltzen behin eta berriz, mundu osoaren beharrak gorabehera? Ardura, grina, jakin-mina, haiekek nituen joera nagusiak. Eta molotov-koktel mardikatu bat osatzen zuten nire barruan.

MINBIZIA

IRURIREN BEGIETAN BELDUR ISILA irakurtzen nuen ordu oroz, eta haren ezinegonak urratu egiten ninduen barrutik. Irurik, betidanik, bere baitan gorde izan zituen halakoak, eta ezer gutxi egin nezakeen nik laguntzeko. Kezkaz hitz egiteak kalte egiten ziola ikustean, ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzen hasi nintzen neu ere. Ohi baino denbora gehiago eman nuen neskarekin, betiere saiatuz haren burutik izua arintzen. Funtsean, ordea, ezgauza sentitzen nintzen.

Neurologoak eskanerra egitera bidali zuen behala (Tomografia Axial Konputerizatua edo TAK deritzona), eta handik egun gutxitara etorri ziren ospitaleko emaitzak.

—Ez da ezer izango —errepikatu nion, batek daki zenbat aldiz. Seinale garbia, bestalde, batere lasai ez nembilela—. Ikusiko duzu.

Baina bazen zerbait.

—Minbizia –jaurti zuen neurologoak, serio-serio, epaiketa lazgarri hartaz guztiz jabeturik.

Entzun genionean, zerua gainera erori zitzaigun Iruriri eta bioi. Ez nuen ulertu jarraian bota zizkigun hitz guztien esanahia, baina mezuaren mamia primeran.

—Minbizia –murmurikatu zuen Iruririk, kontsultatik atera bezain laster.

Kontrako eztarritik sartua neukan hitza, eta tartetxo eder bat behar izan nuen irensteko. Minbizia. Zehazkiago esanda, glioblastoma formaniztuna, tumore bortitz samar bat. Non, eta garunean.

—Beste mediku batengana joko dugu –proposatatu nion berehala Iruriri—. Ez da lehenbiziko aldia izango hanka sartzeko dutena, aizu.

Irurik lerdoa banintz bezala begiratu zidan, «zuk zer uste duzu?» aurpegiatuz bezala.

—Probak birritan egin dituztela esan du –gogorarazi zidan.

Zer esan ez nekiela nengoen. Nola erreakzionatzen duzu bat-bateko zartako baten ondoren? Kolpea eman dizute, baina badakizu besteari eman diotena zurea halako hamar dela. Topikoetara jo behar izan nuen:

—Azken urteetan izugarri aurreratu du medikuntzak, ez ahaztu hori.

—Ez hasi orain loroarena egiten, Bernat. Nahikotan esan du horixe bera medikuak.

—Egia delako. Badakizu egia dela –tematu nintzen.

Une hartan, Irurik ez zidan entzuten. Bere baitan bildu zen erabat.

—Minbizia –errepikatu zuen. Atoan itolarriturik, alboko horman jarri zuen eskua, euskarri bila bezala.

—Iruri, ondo al zaude? Iruri?

Behetik gorantz begiratu zidan. Doinu neutroan hitz egin zuen, film bateko eszena bati buruz ariko balitz bezala, baina hark oraindik gehiago larritu ninduen.

—Jendea hil egiten da, Bernat.

—Batzuk, aizu. Beste batzuk ez! Eta garaiz harrrapatu dizute.

—Hori ez dakizu. Ez hasi orain zurikeriatan.

—Joder, Iruri, ez dakit, ez. Ezin dut jakin! –Bare-tzen ahalegindu nintzen–. Baina entzun, ondo aterako da, ikusiko duzu. Zailagoa zen nik kozinatzen ikastea, eta begira, Argiñanoren parekoa naiz orain.

Esan orduko lotsatu nintzen desgaraiko tontakeria hartaz.

—Penagarria zara txantxak egiten –bota zidan. Hala ere, irribarre txiki bat egin zuen.

—Komedia urruti geratzen zait, egia da –aitortu nion.

Iruri begira-begira geratu zitzaidan orduan. Ez zuen ezer esaten, begiratu besterik ez. Negarrez lehertu zen arte. Elkar besarkatu genuen.

—Bai? Ondo aterako da? —galdetu zidan, negar-zotinka eta haur-tonu ikaratu batez.

Haurrak amaren gezurra behar duenean bezala: «Txertoak ez du minik egiten, ezta?». Eta amak ezetz.

—Jakina —berretsi nion. Besarkada estutu nuen—. Ondo aterako da. Ziur!

Minbizia. Neuronak ziztu bizian ari zitzaizkidan. Hitza bera zen beldurtzekoa. Min bizia edo bi-ziaren mina, bata nahiz bestea, elkarren antzeko. Zein baino zein urragarriagoa. Minbizia garunean. Gure guaren bihotzean. Nortasunaren sustraletan.

Beldurra, ene. Beldurra.

Iruriren gorputza nirearen kontra neukala, dardarka eta izuak jota, amildegi bat ikusi nuen irekitzen nire aurrean, hondogabea, beltza eta espantagarria. Nire lana, grina eta egitekoa, betidanik, planteamendu teoriko egokiak aurkitzea izan zen. Auzi zientifiko bat hartu, eta hura ebazteko jarraibiderik aproposenak lortzea. Eta orain? Itxaropena biltzen moldatu behar nuen, zirrikitu guztietatik argia ekartzen asmatzeko. Zer egin nezakeen? Ez nintzen medikua. Ezer gutxi nekien gaixotasun hartaz.

Egoskorretan egoskorrena naiz, ordea. Burugorrena. Eta edozer egiteko prest nengoen Iruriri txarrik ez gertatzeko. Edozer.

ZENBAIT EGUNEZ, GAIKOTASUNARI BURUZKO informazioa biltzen ibili nintzen. Liburuak, txostenak, aldizkariak, tratamenduak, laguntzak, dolu-faseak. Harrapatu nuen guztia.

Glioblastoma formaniztuna. Han edo hemen azaltzen ziren estatistikak urduritzeko modukoak ziren: Iruriren minbizi bera zeukaten gaixoek, batez beste, urtebeteko epea izaten zuten. Urtebete eskas!

Nire baitan, arriskua izatetik erabateko mehatxua izatera igaro zen minbizi hura, oso abiada bizian igaro ere. Azken batean, igarotako egun haie-tan guztietan, errealitatea ukatzen harrapatu nuen neure burua. Minbizia ez zen erreala, pentsatzen nuen. Edo ez zen hain larria. Edo, konturatzerako, desagertu egingo zen. Edozer gauza onartzeko gertu nengoen irtenbide erraz bat ikustearen truke!

Baina, ondoren, ozeanoaren erdian sentitzen nintzen atzera, itsasertzetik gero eta urrunago, txaluparik gabe eta airerik gabe ia.

Ukatzen. Errealitatea ukatzen ari nintzen. Liburu batean irakurritako oinarritzko informazioa gogoratu nuen. Duela urte batzuk, Kübler-Ross doktoreak sailkapen ospetsu bat eman zuen, gaixoek edo galera handi bat izan dutenen jokabidean agertzen diren faseekin. Bost aipatzen zituen Kübler-Rossek, oso ezagunak:

- 1- UKAZIOA. Pertsonak ez du onartzen zer gertatzen den.
- 2- SUMINA. Batez ere, gazte hiltzen direnen artean. Bizitzaren zati handi bat galdu behar dutela ikusita, amorrutan hasten baitira.
- 3- NEGOZIAZIOA. Hitzarmen bat sinatu nahi da hala-beharrarekin edo jainkoren batekin: gaixoak bakean hilko dira, baldin eta pixka bat gehiago irauten utziz gero, gertakari jakin bat ikusi ahal izateko (ezkontza edo familiako urtebetetzeren bat, esate baterako).
- 4- Ondoren, sarritan, **DEPRESIOA** dator.
- 5- Azkenik, aurreko egoera menderatuz gero, **ONARTZE** fasea iritsiko da: hartan, bakean onartzen da heriotza hurbil dela.

Neure burua ukazioka ikustean, hurrengo pausoez ohartu nintzen. Suminaren zuloan erortzear nengoen, gainera. Sumina munduaren aurka, gaitoxotasunaren aurka, patuaren aurka. Iruri oso gaztea zen! Hainbeste zeukan eta geneukan bizitzeko! Nire hezkuntza zientifikoak hurrengo urratsak aztertzerara eramanez ninduen, eta ikarak jo ninduen: onartzerara iritsiko al nintzen? Baina zerbait onartzen duzunean ez zara hura aldatzen saiatzen. Etsiak hartuta amaitu behar al nuen? Ez. Ez!

Ez nuen nahi. Ez nuen inoiz onartuko.

Litekeena zen Iruri berez sendatzea. Litekeena zen alarma faltsu bat izatea. Baina litekeena zen, halaber, estatistika nagusitzea, eta bide beltz hark aurrera egitea. Ukatzen banuen, gero amorrutan egongo nintzen, ondoren negoziazioari ekingo nion... Azkenean onartzeraino. Ezin nuen bide madarikatu hura ibili. Ihesbide bat aurkitu behar nuen.

Ataka hartan nembilela, Richard Feynman fisikariaren liburu bat iritsi zitzaidan eskuetara: *What do you care what other people think?* (alegia, *Zer axola dizu besteek zer pentsatzen duten?*). Orri haiek angustiarik eta adorerik handienak erein zituzten nigan. Feynman aspalditik ezagutzen nuen, noski, XX. mendeko zientzialaririk bikainenetarikoa izan baitzen. Originala. Ausarta. Egoskorra. Hari buruz, ordea, fisikaz haragoko ezer gutxi nekien. Txantxazale amorratua zela, eta bestelako tontake-

riaren bat baino ez. Liburu horretan, Feynman bizitzaz mintzo zen, fisikaz gain, eta fisikari haren beste aurpegi bat ezagutzeko aukera izan nuen.

Hogei urte inguru zituela, Arlene izeneko neska batez maitemindu zen Feynman. Zoritxarrez, nahiko denbora gutxira, neska gaizki sentitzen hasi zen. Medikuek ez zioten garrantzirik eman, eta Feynman bere kabuz begiratzen hasi zen zenbait liburutan. Fisikariari tuberkulosia izan zitekeela iruditu zitzaion (garai hartan, gaixotasun hilgarria), eta hala esan zien medikuei. Doktoreek, ordea, lasaitzeko gomendatu zioten behin eta berriro, Feynmanek inoiz ahaztu ez zuen aditu-irribarre batez.

Azkenean, fisikariak arrazoi. Eta neska, handik urte gutxi batzuetara, hil egin zen. Harrezkero, Feynmanek jaramon handiagoa egin zion bere barru-ahotsari... neska-laguna salbatzeko apur bat berandu bazen ere.

Feynman ez zen tuberkulosian aditua, ez zen medikua, baina ustezko autoritateak baino urrunago iritsi zen. Gardenago ikusi zuen, deformazio profesionalak (edozein lanbidetan!) begietan txertatu ohi duen bendarik gabe. Askotan, hobeto ikusteko, hobe begirik ez izatea.

Eta nik? Ezin al nuen nik beste hainbeste lortu? Ezingo al nion patuari aurea hartu, eta zerbait prest eduki? Ni ere ez nintzen medikua, baina bai Feynman bezain egoskorra.

MIRARIAK? NON?

EMAITZAK JASO GENITUENETIK astebetera hasi nintzen gehiago estutzen. Probabilitatea nagusitzea zen probableena. Oso litekeena zen minbiziak ohiko garapena izatea. Ohiko garapen hilgarria. Eta Iruri estatistikaren atzaparretara erortzea. Hainbeste maite nuen zientziak iragartzen zuenez, hamar-hamaika hilabete geratzen zitzaizkion, eta datu horren errakuntza-tartea txikiegia zen.

Irurik astebeteko tartea eskatu zion medikuari, tratamendua hasi aurretik. Pentsatu egin nahi zuen. Non zegoen eta nora joan nahi zuen erabakitzeko astia behar zuen.

Nik ere pentsatu nuen tarte hartan. Asko.

Mirariak espero izateko diseinaturik gaude. Ez dut esan nahi diseinatzaile adimendun batek sortu gaituela uste dudarik, baina logikoa iruditzen zait itxaropena geneetan zizelkaturik egotea. Nola eutsi-

ko lioke espezie batek, arazo baten aurrean etsiak hartuko balu? Sinesgaitza dena sinesteko eginak gaude, nahitaez. Gazelak sinetsi behar du lehoia baino azkarragoa izango dela. Lehoiak, noski, alde-rantziz. Eta ni... Ni laster konturatu nintzen mirariren bat itxaroten nuela. Mirari zientifikoa edo erlijiosoa izan, bost axola. Litekeenetik kanpoko zerbait. Zernahi. Iruriri halakorik gertatu ezin zitzaiola sinetsi nahi nuen. Ez zuela merezi. Bidezkoa ez zela.

Baina gertatzen ari zen, eta ez zen inolako miraririk agertzen inon. Errealitatea egia zen, eta nire gogoan zegoena txakur-ametsa baino ez. Ezinbestekotasun horrek beste dilema erdiragarri batera eramán ninduen zuzenean. Bi bidexka ikusi nituen aurrean.

Alde batetik, ezinezkoa zirudiena egiten ahalegindu nintekeen: ikertu inork ez bezala, eta etsai menderaezina konkistatzen saiatu. Hautu hark, ostera, denbora eskatuko zidan. Denbora luzea, Iruriri lapurtu beharko niona. Ordainean, tiket bat erosiko nuen zorigaiztoko zozketa hartan, eta Iruri salbatzeko aukera bat neukan (ondo txikia izanagatik ere).

Beste aukera, jakina, Irurirekin egotea zen, ahalik eta hurbilen, ahalik eta gehien. Laborategia ahaztu, nire barruko borroka-oihuak ahaztu, eta bizitarik biziena atera bizitzari. Urtebetera, mirari

baten zain egongo nintzen, neure buruari galdezka beste bidea hobe ez ote zen.

Arrazoimenarekin ezbaian aritu nintzen egun oso batez. Zer espero nezakeen nik? Nola pentsa nezakeen irabaz nezakeela, hainbestek porrot egin zuten lekuan?

Bi aukera baino ez: edo Iruriren alboan egon, hura zaintzen eta mimatzen, eta ia ziur zimeltzen ikusi; edo ikertzen ahalegindu, eta imposiblea zirudien zerbait lortu, baina Irurirengandik urrunegi.

Oker ez banabil, Iruri eta biok ohean geunden gau batean erabaki nuen bi bide bateraezin horietariko zein hartuko nuen.

Irurik albo batean utzi zuen irakurtzen ari zen aldizkaria:

—Kikerekin hitz egin dut —esan zidan.

Ezin izan nuen min-ukitu bat saihestu, disimulatzen saiatu nintzen arren.

—Apaizarekin? —bota nion, ezkutatu ezin izan nuen mespretxu apur batez.

—Ez da apaiza eta badakizu! Zergatik jartzen zara horrela Kike aipatzen dudan bakoitzean?

—Nola jartzen naiz?

—Horrela. Alanbrea baino tenkatuago.

—Ez da egia.

Egia zen, jakina, eta biok genekien. Aurreko mutil-laguna zuen Kike, eta, artean ere, oso barruan zeukan hark sartu zion arantza. Nik bane-

kien Irurik ezin izan ziola inoiz utzi hura maitatzeari. Baina nola aurpegiratuko nion hori? Buruak ezin du nahierara moldatu bihotza, eta halako kontuak ez ditu norberak kontzienteki eraikitzen. Ez aurpegiratzeak, ordea, ez zuen kentzen nik oinazez hartzea.

KIKE

KIKE TIPO XELEBRE SAMARRA ZEN. Isilegia, aukeran. Oso lasaia. Irurirekin urte pare bat egon ondoren, inork espero ez zuen modu eta unean, Jainkoaren deia entzun zuela jaurti ez zion ba neskari.

Jainkoaren deia. XXI. mendean! Halakorik...

Aurretik, askotan ibili omen zen mutila elizak ikusten, meditazio-taldeekin elkartzen, bakardade-uneak bilatzen. Horrelako bitxikerietan. Jende askoren moduan, egia esan. Baina hortik monasterio batean sartu nahi zuela erabakitzero ez zegoen tar-te makala.

Berehala ohartu zen Iruri Kikeren erabakia ez zela ero-eroan eta arinkeriaz hartutakoa. Eta neska ezin izan zen Jainkoaren aurka borrokatu. Edo borrokatu bai, baina ez hesi jainkotiarrek zeharkatze-ko lain. Teologiaren bidezidorretan murgildu zen Kike. Iruri, berriz, bakardadearen itzaletan.

—Azkenean ere, monasterio batera joango dela esan dit —azaldu zidan Irurik. Oheko burkoa hobeto jarri zuen, nire aldera begira jartzeko—. Proba egin nahi duela. Oso serio hartu du kontua. Barrutegiko fraide izateko asmotan dabil.

—Ikusten? Apaiza.

—Ez da batere barregarria, Bernat. Zuk txantxetan hartzen duzu beti.

—Txantxetan? Entzun dudan gauzarik serioenetariko da. Hogeita hamar urte bete berritan, modelo bat bezain ederra, eta barrutegiko fraide sartu behar duela esaten didazu. Txantxa? Bai zera. Tragedia da hori!

—Kike zintzoa da bere buruarekin. Gehienak ez bezala.

—Eskerrik asko, aizu.

—Ez dut zugatik esan.

—Ez dakit ba.

Puska batez isilik geratu ginen, bakoitza bere sabai-zatira begira. Tonto honek ez zuen asmatu pozoia barruan gordetzen luzaro:

—Hartaz maiteminduta jarraitzen duzu —esan nion.

—Zurekin nago.

—Ez duzu erantzun.

—Maite zaitut, hori galdetu nahi baduzu. Bihoztzez. Bestela ez nintzateke zurekin egongo.

—Baina baita hura ere.

—Kike oso berezia izan da nire bizitzan. Ez nuke galdu nahi. Eta orain, inoiz baino gutxiago. Ez saiatu hortik, faborez.

Berrero sortu zen isilaldi luzea. Oraingoan, Iru-rik hautsi zuen:

—Funtsean, uste duzun baino antz handiagoa duzue.

—Kikek eta biok? –harritu nintzen.

—Bai. Kikek eta zuk.

—Ez dakit zertan. Hasteko, nekez aurkituko duzu ni baino ateagorik.

—Ez dauka horrekin zer ikusirik.

—Ez? Bada, hura ilehoria da, ni beltzarana, hura luzea eta fina da, ni baxua eta zabala, hura... –hasi nintzen zerrendatzen—. Jarraitzea nahi duzu?

—Oraintxe beste antzekotasun bat erakutsi didazu –azaldu zidan–: ni amorrarazten maisuak zarete biak! Baina beste zerbaitegatik esaten nuen. Begira, ideia bat kaskezurrean sartzen zaizuenean, jai daukagu gainerakook. Zuentzat kaltegarria izan arren. Gainerakoontzat kaltegarria izan arren...

Flotazio-marrari zuzendutako torpedoa zen hura.

—Egoskorkeriak parekatzen gaitu orduan –esan nion.

—Nolabait. Hark erlijioa hautatu du, zuk zientzia. Baina modu guztiz bertsuan biak. Indar eta gogo berarekin.

Kike. Beti gainean neukan itzala. Kike perfektua omen zen, duina, onbera eta ondradua. Eta oke-

rrena zen egia zirudiela. Baina egoskorkeriak berdintzen gintuen.

—Orduan, haren antza daukadalako zaude nirekin? —galdetu nion.

Berez, galdera errugabea zen, edo hala pentsatu nuen bota aurretik. Segituan, baina, zaplada ere bazela konturatu nintzen.

—Nik ez dut inoiz horrelakorik esan, Bernat —gaineratu zuen Irurik, serio—. Zaren bezalakoak zarelako nago zurekin. Egoskorra eta tematia. Askotan zeurekoia. Baina baita noblea eta zintzoa ere. Eta zoroa eta dibertigarria. Zurekin gustura sentitzen naiz. Babestuta.

—Babestuta —errepikatu nuen, hitza baino gehiago, gori-gori zegoen burdina-puska balitz bezala. Babestuta? Nola babes nezakeen ondoen, ordea? Nola?

Kike erlijiotartu eta haren mundutik urrutiratu zen garaian, ni azaldu nintzaion Iruriri, nire zientzia eta ikertu-nahiarekin. Poteoak, pasierak eta txangoak egin genituen. Konturatzerako, elkarrekin hasi ginen. Nik Iruriren poza eta alaitasuna irabazi nituen. Irurik nire grina eta ero-puntua. Hala esan zidan behin baino gehiagotan. Eta orain zintzotasuna eta babesa gehitu berri zizkion nire kurrikulumari. Babesa, ene.

Irurik begiak itxi zituen bat-batean. Minez zen. Beste behin.

—Burua? —galdetu nion.

—Bai.

—Ea, argia itzali eta lotan jarriko gara, bada eta ordua.

—Bernat?

—Esan.

—Zuri besarkatuta egon naiteke?

Isilean gorde nahi bazuen ere, gero eta beldur handiagoa zeukan Irurik, eta hark desegin egiten ninduen barrutik.

—Zatoz —esan nion—. Zatoz hona.

Nire barruko malko ezkutuen artean, erabakia hartu nuen.